



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio-kanalen bidez gure bezeroengana iritsiko gara. Lehenik eta behin, **publizitatearen** bidez bezeroek ezagutuko gaituzte . Interneten iragarkiak jarriko ditugu bezeroak erakartzeko. **Webgune** bat ere sortu dugu bezeroekin komunikatzeko eta klaseak emateko. Bertan, nortzuk garen eta gure esperientziak azaltzen dira. Gainera ingelesa osotasunean ikasteko bermea eskeintzen dugula baieztatzeko, hizkuntza proba batzuk ahalbideratuko ditugu eskolan matrikulatu aurretik.

Ikasleekin komunikazio zabala eta profesionala bultzatuko dugu. Hobetzeko aukera guztiak eskaintzea eta ikaskuntzan laguntzea baita gure helburu nagusia. 24 ordu dituzte bezeroek online bidez irakasleekin komunikatzeko eta dudak galdetzeko. Webgunean, gure helbide elektronikoa eta chat atal bat izango ditugu irakasleekin zuzenean hitz egiteko aukera izateko.

Matrikulazioa, webgunearen bidez egingo da eta ordainketan handik egiteko aukera izango dute bezeroek. Webguneak atal berezi bat izango du matrikulatzeko informazio guztiarekin. Halaber, ordainketa guztietarako atal berezi eta arduratsu bat izango dute.



615182332



englishsquare@gmail.com

